

## V. ERANSKINA – INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

\_\_\_\_\_, jaunak/andreak (NAN-zk.: \_\_\_\_\_),  
\_\_\_\_\_, erakundearen kontseilari  
ordezkari/kudeatzaile gisa (IFZ: \_\_\_\_\_); helbide soziala:  
\_\_\_\_\_, C24.I2.P2.S1 azpi proiektuan zehaztutako  
helburuak lortzeko SEEPtik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen eskatzaileak, aitortzen dut:

Lehenengoa. Honako hauen berri dudala:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren Finantza-araudia) 61.3 artikulua ("Interes-gatazka") ezartzen du «*interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, afinitate politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik*».
2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua ("Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa") helburua lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatzailerik guztiei tratu-berdintasuna ziurtatzea da.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua ("Abstenitzea") ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenitu egingo direla «*administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean*»; honako hauek dira:
  - a. Interes pertsonala izatea kasuan kasuko gaian edo haren ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunaren administratzailea izatea, edo interesdunen batekin konpondu gabeko auziren bat izatea.
  - b. Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.
  - c. Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
  - d. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
  - e. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena. Ez nagoela dirulaguntzaren prozeduran parte hartzen duen pertsonaren bat EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako kasuren batean egotea eragin dezakeen ezein egoeratan; era berean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan aurreikusitako arrazoiekin bat etorritik, ez dudala prozeduran parte hartzen duen eta dirulaguntza emateko prozeduran edo, ondoren, deialdiaren oinarrietan aurreikusitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozeduran eragina eduki dezakeen edo eduki ahal izan duen pertsona bati ere abstentzioa emateko arrazoirik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dudala organo eskudunari jakinarazteko, luzamendurik gabe, dirulaguntzen prozeduran parte hartzen duen pertsona bati dagokionez, interes-gatazka eragin

dezakeen edo pertsona hori abstenitzeko arrazoi izan daitekeen edozein inguruabar, baldin eta egoera hori eragin badu edo eragin badezake.

Laugarrena. Konfidentziasunez tratatuko ditudala dirulaguntzen prozedura honen barruan, onuradun naizen aldetik, dagozkidan jarduerak gauzatzearen ondoriozko betebeharrak garatzean eskura ditzakedan gaiak eta dokumentazioa, eta ez dudala modu desegokian erabiliko, onuraduna naizen aldetik, dirulaguntzen prozeduran parte hartzean eskura dezakedan informazioa.

Bosgarrena. Ezagutzen dudala aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboak eta judizialak ezarriko direla, baldin eta interes-gatazkarik ezaren adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada.

\_\_\_\_\_ (e)n, sinadura elektronikoaren datan.